



**2022ko abenduaren 22ko HITZARMENA ikus-entzunezkoen arloko profesionalentzako 2022ko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren merkatuetan, azoketan eta ekitaldi profesionaletan parte hartzeko.**

1.- 2022ko otsailaren 16ean, ikus-entzunezkoen arloko profesionalentzako 2022ko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren merkatuetan, azoketan eta ekitaldi profesionaletan parte hartzeko laguntzen deialdia argitaratu zen Zineuskadi Elkartearen webgunean.

2.- Lehen fasean jasotako eskaerak aztertu eta pandemiaren ostean normaltasunera itzuli ondoren, laguntza handitzea erabaki da, 2022rako aurreikusitako eskaera guztiak bete ahal izateko.

3.- Hala, laguntza horri 5.000 €gehitu zaizkio, eskabideak bete ahal izateko, horrela 2022ko dirulaguntzaren kopuru orokorra 50.000€-koa izango da.

Donostian, sinaduraren datan

**Aitziber Atorrasagasti Calcedo  
Asociación Zineuskadiren Zuzendaria**